

Covid-19

## Alarma egoera ezarri zenean

### EHUko Hezkuntza alorreko hiru Fakultateetan

### Praktika Curricularren egoera eta ikasturtea amaitzeko Jardun-plana

2020 / 04 / 17 (0.4)

Dokumentu honetan Bilboko Hezkuntza Fakultateak, Gasteizko Hezkuntza eta Kirola Fakultateak eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak, covid-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko martxoaren 14an ezarritako larrialdi egoeraren unean Fakultate bakoitzean praktika curricularren egoera eta, ikasturtea amaitze aldera, egituratu dugun Jardun-plana azaltzen ditugu.

### Praktika Curricularren egoera

Ondoko taulan ikus daiteke zein den hiru fakultateetako titulazio ezberdinetan praktika curricularrek larrialdi egoeran unean era presentzian zuten betetze maila.

Praktika Kurrikularrak Donostiako HEFA, Bilboko BHF eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirola Fakultateetan													
Fakultatea	Gradua	P1			P2 (2/3)			P3			GUZTIRA Graduan		
		Egin beharreko ordu presentzialak	Egindako orduak	%	Egin beharreko ordu presentzialak	Egindako orduak	%	Egin beharreko ordu presentzialak	Egindako orduak	%	Egin beharreko ordu presentzialak	Egindako orduak	%
Donostiako HEFA	Antropologia	340	340	100							340	340	100,0
	Gizarte Hezkuntza	170	170	100	535	385	72,0				705	555	78,7
	Haur Hezkuntza	150	150	100	210	110	52,4	360	360	100	720	620	86,1
	Lehen Hezkuntza	150	150	100	210	110	52,4	360	360	100	720	620	86,1
	Pedagogia	80	45	56,3	370	370	100				450	415	92,2
	2. Hezkuntza Masterra	190	32	16,8							190	32	16,8
Bilboko BHF	Haur Hezkuntza	150	150	100	210	210	100	360	231	64,2	720	591	82,1
	Lehen Hezkuntza	150	150	100	210	210	100	360	231	64,2	720	591	82,1
	Gizarte Hezkuntza	175	175	100	540	393	72,8				715	568	79,4
Gasteizko Hezkuntza eta Kirola	Haur Hezkuntza	150	150	100	210	180	85,7	300	300	100	660	630	95,5
	Lehen Hezkuntza	150	150	100	210	180,0	85,7	300	300	100	660	630	95,5
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Masterra										Gutxienez 150		

Graduei erreparatuz, eta titulazioko praktikaldi guztiak kontuan hartuta, kasu guztietan titulaziorako diseinatutako praktiken % 78tik gora burutu dira presentzialitate osoarekin, eta Antropologiaren kasuan, % 100ean.

Gradu bakoitzean burutzen diren praktikaldiei begiratzuz gero:

- Gizarte Hezkuntzako graduari dagokionez, ikasleek laugarren mailan P2 eta 3 egiten dute. Bi hauek batera hartzen ditugu elkarren segidan eta erakunde berean gauzatzen direlako. Kasu honetan, gauzatze maila % 72koa da, eta, aurretik egindako P1a gehituz gero, % 79 ingurukoa.
- HH eta LH graduei dagokionez, ikasleek laugarren mailan P3 egiten dute. Donostiako eta Gasteizko Fakultateetan praktikaldi hau % 100ean gauzatu da. Presentzialitatearen etenaldiak, bi Fakultate hauetan, hirugarren mailan gauzatzen den P2an izan du eragina, Donostian erdia pasatxo burutu baita (% 52,4) eta Gasteizen, egoera hobeagoan, % 85,7. Bilboko kasuan, azken urteko P3a % 64,2an gauzatu da, eta aurreko praktikaldiak % 100ean. Praktikaldi guztiak kontuan hartuz, HH eta LHn burutu dira praktiken % 86,1 Donostian, % 82,1 Bilbon eta % 95,5 Gasteizen.
- Pedagogiako graduari dagokionez, ikasleek laugarren mailan egiten duten P2a % 100ean burutu da. Titulazio honetan etenaldiak eragina izan du 3. mailan egiten den eta kreditutan askoz txikiagoa den P1ean, % 56,3an gauzatu dena. Pedagogian guztira praktiken % 92,2 egin dira.

## Ikasturtea amaitzeko Jardun-plana

Jardun-plan honetan zehazten diren erabakiak eta jarraibideak osatu ditugu UPV/EHUko Errektoretzak onartu dituen Erresoluzio eta Jarraibideetan oinarrituz, eta, Hezkuntzako Dekanoen Konferentziak zein Errektoreen Konferentziak argitaratu dituzten orientazioak erreferentziazat hartuz.

UPV/EHUko Errektoretzaren apirilaren 8ko Erresoluzioak finkatzen dituen jarraibideen lehen puntuak, egutegi akademikoak mantendu egingo direla esaten du:

*Jarduera akademikoak eta ikasturtearen amaiera behar-beharrezkoa dena baino gehiago ez atzeratzeko eta horrek eraginpeko ikasleengan eragingo lukeen kaltea saihesteko, indarrean jarraitzen dute bai oinarrizko egutegi ofizialak, bai ikastegietako edo master tituluetako egutegi akademikoek.*

Kanpoko praktikei buruzko 3. puntuan, berriz, honako hau dio:

*Ikasleen graduaziorako ezinbesteko edukia duten curriculumeko praktikak dituzten tituluen kasuan, praktikak egintzat hartuko dira, aurrez aurreko modalitatean aurreikusitako gaitasunetan nahikoa maila eskuratu dela irizten bazaio, eta, ahal den neurrian, gaitasunak mintegien edo beste jarduerak ez-presentzial batzuen bidez osatu behar dira. Horrek, funtsean, tituluen azkeneko mailan dauden ikasleei eragiten die. Gainerakoetan, datozen mailetan eskuratu daitezkeen gaitasunak baloratu behar dira, irakaskuntza eta ebaluazioa planifikatzeko unean, eta horretarako ezinbestekoak izango dira titulu eta ikastegietako koordinazio organoak.*

*Baldin eta, aurrez aurreko eskoletan aurreikusitako gaitasunetan maila egokirik lortu ez bada eta prestakuntza hori hurrengo ikasturteetara atzeratu ezin bada, ikastegietako zuzendariek eta*

*dekanoek beste prestakuntza aukera batzuk landu beharko dituzte. Salbuespen gisa, lanbide arautuetarako sarbidea ematen duten eta ministerioaren irizpideak bete behar dituzten tituluetan curriculumeko praktiken egutegia luzatu ahal izango da, eta horretarako aintzat hartuko da 1. Atalean ezarritakoa.*

Horrela, eta Errektoreen eta Dekanoen Konferentzietatik aditzera emandakoarekin ere bat eginez, irizpide nagusia ikasturtea ahalik eta modu 'normalenean' aurten amaitzea eta ikasleek krisi honengatik ikasturtea ez galtzea izango da praktikak kurrikularrei dagokienean ere erabiliko dena.

### Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak

Aurreko atalean agertzen diren datuak kontuan hartuz, ikus daiteke HH eta LH graduen kasuan hiru Fakultateetan Dekanoen Konferentziak (CODEK) zehazten duen lehen eszenatokian gaudela ikus daiteke. Hori horrela, ikastetxeetan bertan egindako egonaldiekin ikasleek practicumerako aurreikusitako gaitasunetan nahikoa maila eskuratzeko modua izan dutela irizten dugu. Honako hau ere azpimarratuz:

- Bertakotzearen etenaldia gertatu denean P2a egiten ari ziren ikasleen kasuan, ikasle hauek datorren urtean P3a burutu beharko dute, eta presentzialitatearekin erlazionatuago dauden gaitasunetan sakontzeko aukera izango dute.
- Bertakotzearen etenaldia gertatu denean P3a egiten ari ziren ikasleen kasuan, ikasle hauek ikasketen zehar guztira 600 ordu egin dituzte ikastetxeetan bertaratuta, % 82,1, gehi Fakultatean burutzen diren practicumerako prestakuntzak, jarraipen mintegiak eta ikaslearen lan pertsonalak.

Beraz, hiru Fakultateetako Dekanotzek, Fakultate bakoitzeko Practicum Batzordearen informean oinarrituta, ontzat ematen ditugu aurtengo ikasturtean HH eta LH graduetan burutu diren praktikaldiak.

Orain, eta ikasturtea amaitzeko aurretik gelditzen diren asteetan,

- Formazio prozesua osatuko da. Ikasleek haien Fakultateko tutoreekin tutoretza prozesuak jarraituko dituzte (mintegiak on line, memoriak garatzeari begira orientabideak jaso ...), orain arte bezala. Mintegietan praktikaren eta bizitako egoeraren hausnarketak eta garapenak landuko dira.
- Zentzu horretan, hausnarketa memorian arreta berezia jarriko zaio Covid-19a dela eta praktika zentroetan bizi izan den / bizitzen ari den egoeraren ondorioei, era honetako galderei erantzunez:
  - Zure praktika zentroak zer erantzun eman du egoera ez presentzialaren aurrean?
  - Zuk zer inplikazio maila eduki ahal izan duzu bertan?

- Covid-19a dela eta pairatzen ari garen egoera honek jendarte mailan, eskolaren munduan... zer eragin izango duela uste duzu?

Egoera bereziren batean egon daitezkeen ikasleen kasuari dagokionez, kontuan hartuko da goian aipatu irizpide nagusia. Ikasle hauei konfinamendu egoerarekin lotutako kasu praktikoko bat eman ahal izango zaie, eskuhartze baten diseinua, proposamen didaktikoa eta horri lotutako Memoria presta dezaten. Fakultate bakoitzeko Practicum Batzordearen esku geratzen da kasu hauek, baleude, aztertzea eta erabakitzea.

Practicum ikasgaiaren ebaluazioari dagokionez, ahal den neurrian practicumaren Gidan finkatutako ebaluazio sistema eta banaketa mantenduko da. Egoeraren zailtasunengatik hori ezinezko bihurtzen bada edota Fakultateko Practicum Batzordeak horrela baloratuta komenigarritzat jotzen badu, ikasgaiaren ebaluazioa % 100ean Fakultatean egingo da.

### Gizarte Hezkuntza Gradua

Gizarte Hezkuntzako Graduaren praktikei dagokionez ere, gradu hau eskaintzen dugun bi Fakultateetan Dekanoen Konferentziak (CODEk) zehazten duen lehen eszenatokian gaudela ikus daiteke. Hori horrela, ikastetxeetan bertan egindako egonaldiekin ikasleek practicumerako aurreikusitako gaitasunetan nahikoa maila eskuratzeko modua izan dutela irizten dugu. Honako hau azpimarratuz:

- Ikasleek laugarren mailan P2/3 egiten dute, elkarren segidan eta erakunde berean. Praktikaldi honen gauzatze maila % 72koa izan da, eta, aurretik egindako P1a gehituz gero, titulazioan guztira % 79 ingurukoa.
- Zentroetan burutu duten praktikaldian, 4. mailako ikasleek honako gaitasuna hauek garatzeko aukera izan dute:
  - Gizarte hezkuntzako testuinguruetan profesionalki esku-hartu, gai ezberdinetako teoria eta praktika oinarri direla, ikuspegi etiko eta deontologia profesionala errespetatuz.
  - Hezkuntza ekintzaz arduratu, lanbidearen nortasunaren errekonozimendutik eta gizarte hezitzaileen funtzio profesionaletatik abiatuz.
- Horrez aparte, Practicum honen gaitasunak fakultatean egiten diren jarraipen mintegiekin estuki lotuta direnez, zentroetan egin den lana tutoreekin osatzen da, honako gaitasuna hauek lortuz:
  - Talde lanaren bitartez ezagupena sortu, gizarte hezkuntzaren lanbidearen izakera eta bete beharretaz aritu, ikerketa erabiliz eta praktikaren azkerketan oinarrituz.
  - Idatziz eta ahoz, eta arrazoiak erabiliz, gizarte hezitzaileen lan profesionalaren gogoetak eta erakundeen kultura ezberdinak jakinarazi.
  - Gizarte-hezitzaile ekintzak diren proiektu eta programen plangintza egin, garatu eta ebaluatu, erreferentzia diren errealitate bateko diagnostikoen ondorioak eredu izanik.

- Proposamenak sortu, tresnak eta hezitzaileak diren lanabesak eraiki, hezitzaileak diren ibilbide, testuinguru eta baliabideak aberastu eta hobetzekotan.
- Jakintza alor-arteke eta erakunde barneko taldeetan lanean aritzeko gaitasuna.

Beraz, bi Fakultateetako Dekanotzek, Fakultate bakoitzeko Practicum Batzordearen informean oinarrituta, ontzat ematen ditugu aurtengo ikasturtean Gizarte Hezkuntza Graduan burutu diren praktikaldiak.

Orain, eta ikasturtea amaitzeko aurretik gelditzen diren asteetan, formazio prozesua osatuko da. Ikasleek haien Fakultateko tutoreekin tutoretza prozesuak jarraituko dituzte (mintegiak on line, memoriak garatzeari begira orientabideak jaso ...), orain arte bezala. Mintegietan praktikaren eta bizitako egoeraren hausnarketak eta garapenak landuko dira.

Praktikaldiko ordu guztiak bete ez dituen eta egoera berezian dagoen ikasleren bat balego, kontuan hartuko da goian aipatu irizpide nagusia. Ikasle hauei Practicum helburuei atxikiak diren jarduera praktikoa osagarria betetzeko eman ahal izango zaie, irakasgaiari dagozkion gaitasunetan gehiago sakondu ahal izateko. Fakultate bakoitzeko Practicum Batzordearen esku geratzen da kasu hauek, baleude, aztertzea eta erabakitzea.

Practicum ikasgaiaren ebaluazioari dagokionez, ahal den neurrian practicumaren Gidan finkatutako ebaluazio sistema eta banaketa mantenduko da. Egoeraren zailtasunengatik instruktorearen ebaluazioa jasotzea ezinezko bihurtzen bada edota Fakultateko Practicum Batzordeak horrela baloratuta komenigarritzat jotzen badu, ikasgaiaren ebaluazioa % 100ean Fakultatean egingo da.

### Pedagogia Gradua

Pedagogiako Graduaren praktikei dagokionez, kasu honetan ere, Dekanoen Konferentziak (CODEK) zehazten duen lehen eszenatokian gaudela ikus daiteke. Hori horrela, ikastetxeetan bertan egindako egonaldiekin ikasleek practicumerako aurreikusitako gaitasunetan nahikoa maila eskuratzeko modua izan dutela irizten dugu. Honako hau azpimarratuz:

- Titulazio honetan etenaldiak eragina izan du 3. mailan egiten den eta kreditu zein ordu kopurutan pedagogiako bi praktikaldetatik dezente txikiena den P1ean. Ikasle hauek datorren urtean P2a burutu beharko dute, eta presentzialitatearekin erlacionatuago dauden gaitasunetan sakontzeko aukera izango dute.
- Pedagogiako Practicum lean egindako praktikaldian, zentroetan garatu behar diren gaitasunak garatu izan dira, hots, esku-hartze pedagogikorako arlo profesionalen, hezkuntza-proiektuen, jarduera-planen eta horiek gauzatzen diren sareen ikuspegi orokorra eraikitzea.

- Horrez aparte, Practicum honen gaitasunak fakultatean egiten diren jarraipen mintegiekin estuki lotuta direnez, zentroetan egin den lana tutoreekin osatzen da, honako gaitasuna hauek lortuz:
  - Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.
  - Jardun profesionala analizatuta jakintza eskuratzea, eta jakintza hori tituluko moduluetan eskuratutako ezaguerekin erlazionatzea.
  - Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea, hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.

Hori horrela, HEFA Fakultateko Dekanotzak, Fakultateko Practicum Batzordearen informean oinarrituta, ontzat ematen ditu aurtengo ikasturtean Pedagogia Graduan burutu diren praktikaldiak.

Practicum ikasgaiaren ebaluazioari dagokionez, ahal den neurrian practicumaren Gidan finkatutako ebaluazio sistema eta banaketa mantenduko da. Egoeraren zailtasunengatik instruktorearen ebaluazioa jasotzea ezinezko bihurtzen bada edota Fakultateko Practicum Batzordeak horrela baloratuta komenigarritzat jotzen badu, ikasgaiaren ebaluazioa % 100ean Fakultatean egingo da.

### Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Gradu honek 12 kredituko nahitaezko praktiken modulu bat dauka bere irakats eskaintzan (4. Mailan), jarduteko lau eremu espezifikorekin: Kirol Entrenamendua, Berrikuntza Teknologikoa eta Irakaskuntza, Kirol Kudeaketa eta Jolasa, eta Jarduera Fisikoa eta Ongizaterako Osasuna.

Une hauetan ditugun datuen arabera, 100 eta 120 ordu bitartean eginda dituzten 4 ikasle daude, 80 eta 100 bitartean 15 ikasle, 60 eta 80 bitartean 6 ikasle, 40 eta 60 bitartean 6 ikasle eta, bukatzeko, 60 ordu baino gutxiago egin duten 2 ikasle daude.

Larrialdi egoera kontuan hartuta, aurreikusi da ohiko deialdia mantentzea eta ez ohiko deialdia atzeratzea. Hala ere, beharrezkoa suertatuz gero, eta ikasleak ez kaltetzeko, ohiko deialdiaren akta zuzenketak egitea ere aurreikusi da luzatuko diren praktika gutxi batzuetan.

### Bigarren Hezkuntzako Masterra

Bigarren Hezkuntzako Masterrari dagokionez, presentzialitatearen etenaldia gertatu zenean, ikasleak nahiko hasi berriak ziren praktiketan, eta orduen % 16,8 zituzten eginda.

Ikasle hauen kasuan, Fakultatetik ikastetxeei gutuna bidali zitzaien (ikus eranskina) ikasleek etxetik telelana eginez ikastetxeari lagunduz praktikaldiarekin jarrai zezaten eskainiz. Gutuna

bidali aurretik, soluzio honen egokitasunari buruzko kontsulta eta kontrastea egin genuen EHUko Graduondoko Ikasketen Zuzendariarekin, EHUko Praktiken eta Enplegarritasunaren Zuzendariarekin eta Jaurlaritzako praktiketako arduradun teknikoarekin, eta guztien adostasuna jaso genuen. Jaurlaritzako arduradunak zehaztu zigun begi onez ikusten zutela proposamena baina ez zutela botere exekutiboa ikastetxeak honetara behartzeko.

Proposamen honek harrera ona izan zuen ikastetxe gehienetan eta masterreko ikasleak, ikastetxeetako irakasleak bezalaxe, etxetik ari dira bere praktikaldiko lana betetzen.

Hori horrela, HEFA Fakultateko Dekanotzak, Masterreko Batzorde Akademikoaren informean oinarrituta, ontzat ematen ditu aurtengo ikasturtean Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterrean hasieran modu presentzialean eta, jarraian, on-line teleirakaskuntza bidez burutzen ari diren praktikaldiak.

Praktikaldiko ordu guztiak bete ez dituen eta egoera berezian geratu den ikasleren bat balego, kontuan hartuko da goian aipatu irizpide nagusia, hau da, ikasturtea ahalik eta modu 'normalenean' aurten amaitzea eta ikasleek krisi honengatik ikasturtea ez galtzea. Kasu hauetan:

- Egoerak eraginda egun batzuetako etena izan eta ordu batzuk galdu dituen ikaslearen kasuan, bi aukera:
  - Ikasleak, egutegia kontuan hartuz, ikastetxearekin adostu eta praktikaldia luzatzen du egun batzuk.
  - Aurrekoa ez bada posible, Fakultateko tutoreak jarduera osagarria proposatuko dio ikasleari gaitasunetan sakondu ahal izateko.
- Ikasleren bat azkenean instruktorerik gabe gelditu bada, ordezkoko proiektu praktikoko baten aukera zabaldu zaio, honako hau burutzea planteatuz:
  - *Diseinatu interbentzio pedagogikorako proposamen bat konfinamendu egoeran ikasleek ikasgaiarekin jarrai dezaten. Prestatu programazioa, jarduerak, sekuentzia, laguntza eta orientazio sistema.*

Masterraren Batzorde Akademikoaren esku geratzen da kasu hauek, baleude, aztertzea eta erabakitzea.

Practicumaren ebaluazioari dagokionez, practicumaren Gidan finkatutako ebaluazio sistema eta banaketa mantenduko da. Kasuren batean, egoeraren zailtasunengatik instruktorearen ebaluazioa jasotzea ezinezko bihurtzen bada, edota Masterreko Batzorde Akademikoak horrela baloratuta komenigarritzat jotzen badu, ikasgaiaren ebaluazioa % 100ean Fakultatean egingo da.

## AZKENAK:

Dokumentua Errektoretzari bidaliko zaio, eta Fakultateetako Batzarretan onetsia izango da.



## 1. eranskina

---

## Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

### **Ikastetxeko Zuzendariari / Praktiketako arduradunari.**

Gutun hau idazten dizuegu bizitzen ari garen egoera honek sortu duen arazoetariko bati begira lagungarri izan daitekeen nolabaiteko aukera bat planteatu asmoz.

Alde batetik, ikastetxeok dozentzia presentziala bertan behera utzi behar izan dugu, baina beti ere ikasleei bestelako bitarteko telematikoa edota urrunekoen bidez jarraipen akademikoa bermatuz. Horrek, jakina denez, egokitzapen lan eskerga eta edukien eta materialen lanketa berria bideratu beharra ekarri digu.

Bestalde, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Formaziorako Masterreko ikasleek pasa den astean hasi zuten euren praktikaldia ikastetxeetan. Zorritzarez, hasi eta berehala etorri zaigu dozentzia presentzialaren etenaldia.

Hori horrela, eta kontuan hartuz bai ikastetxearen uneko lan zama gehitua, bai eta ere praktiketari hasitako ikasle hauek jada zentroari esleitutako praktiketako ikasleak direla eta horiek amaitzeko beharra dutela, uste dugu aukera ona izan daitekeela zuen ikastetxean praktiketako ikasle horiek profitatzea baliabide gisa, ikastetxeak une honetan dozentziaren egokitzapenerako eta materialen sorkuntzako dituen beharretan edozelako lanetan lagundu dezaten.

Ikaslea, noski, telelanean arituko litzateke, lehendik esleitua duen instruktorearekin, baina ikastetxeak bere uneko beharren arabera agindutako lanak betetzen. Fakultatetik Masterreko ikasle hauei instrukzioa bidaliko diegu instruktorearekin harremanetan jarri eta, aipatu modu honetan, beren esanetara jar daitezten.

Egoera zail honetan hemen planteatzen dizuegun aukera baliagarria izango zaizuelakoan, ez izan kezkarik edozertarako gurekin harremanetan jartzeko. Adeitasunez

### **Al Director/a o Responsable de Prácticas del Centro.**

Os escribimos esta carta con el objetivo de plantear una posible oportunidad que sirva de ayuda a uno de los problemas que esta situación que estamos viviendo.

Por un lado, los centros educativos hemos tenido que suspender la docencia presencial, pero siempre garantizando el seguimiento académico a los alumnos, por medio de otros medios telemáticos o a distancia. Esto, evidentemente, nos ha supuesto una gran labor de adaptación y una nueva elaboración de contenidos y materiales.

Por otro lado, el alumando del Máster en Formación de Profesores de Secundaria inició su periodo de prácticas la semana pasada en los centros escolares. Desgraciadamente, nada más empezar nos ha venido la suspensión de la docencia presencial.

En este sentido, teniendo en cuenta que ,tanto la carga de trabajo en el momento en los centro como la situación de prácticas de nuestros alumnos y alumnas (asignados a vuestro centro y confinados en casa) creemos que el centro escolar puede ser un instrumento para que el alumnado de prácticas colabore en la adaptación de la docencia y en las necesidades de generación de materiales.

Por supuesto, el alumno se dedicaría a la teletrabajo, con el instructor que ya tiene asignado, pero en función de las necesidades que el centro tiene en su momento. Desde la Facultad se enviará la instrucción a estos alumnos del Máster para que se pongan en contacto con el instructor y se pongan a disposición de los mismos.

Esperando que la oportunidad que os planteamos aquí en esta difícil situación, no tengamos ninguna preocupación para ponerte en contacto con nosotros. Atentamente

**Masterreko Batzorde Akademikoa / Comisión Académica del Master**

**Javier Monzon: [javier.monzon@ehu.es](mailto:javier.monzon@ehu.es)**

**655714948**